




**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

LANDAJUELA, Anton, IX. atala



Ezkonbarri-pasadizoa
2012ko SARI LEIAKETA, Bigarren saria



Itxasoko Amatxu

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, IX.



Gosearen ondorenak.

Euskotarrai buruz etzan jazoten alakorik, bai osteraz gazte etziranen espainarren artean. Azur eta azal biurtzen ziran da, txorkatil eta belaunburuak anditu egiten jakiezan bildurgarri eginarte.

Artaldeko ardi gaxoak ba-liran lez aukeratu, gaxoenak berezitu, eta onengoentzat izaten zan lekura eroan osatu zeikeazan.

Leku artan janari geiago emon, pititxu bat indartsutu eta lengo larra urrira biurtuak izaten ziran, eta larra urrian makalen izaten ziranak, azal azurdunen, belaun andituentzat izaten zan. Lekura eperdiaz lurra jo baño len eroiezan.

Kristaukeriak.

Kristau eta katoliku, egiten ginduezan, igande ta jaietan. Mezea enparantza zabalean. Sinismen da sinismenik bageko lerro artezetan tinko ta geldirik egon arazoten ginduezan. Eguna otza zanean sudurra estaltzerakoan jakearen goialdea jasotzerakoan -eskuak igitu bear genduzan ta- errez baño errezago irabazten genduzan iru-lau belar-ondoko guda baño aurreragotik, komunen eskuekaz emonak. Eguzkia galda gorrian izatean barriz, obe izaten jakun agin eta ortzak alkarrengan estutuz, belarrietan da bekokian eztena sartzen euskuen euliai bakean itxi. Or eta emen izaten ziran espetxaraturiko txakurrak, zirkiñik txikerrena egiten ba-genduan, eta onengoen batek ikusi, ez mezaren ganako ta, gizonarekiko errukirik ezaban izaten da. Ezker eskumaz jotzen ginduenan.

Aita edo Padre Bolinaga

San Inazio-ren Lagundikoa. Arbaso zarren batzuekandik 4gn, 5gn, ta seigarren abizen euskalduna ekarran. Apaiz egitea bururatu jakonean, urioleak eron ba-leu itxaso sakonaren erraietara, gutzaz eta elizearentzaz askoz bere obeto izango zan.

Abade demoniño onen abadetasuna, soñerako luze baltzetan asi ta amaitzen zan, arimari ikutu barik. General jantzirik, bere biziko morrosko, bere menpeko gudarieri agindurik zorrotzenak emoteko.

Meza bitarteko itzaldia Ebanelioaz asi, amaitu barriz Francoren gudari trebe, galtzairu ezpata dizdiratsu, irabazitako burruka toki, Garcia Morato egazean zerura sartzen ikusi eban eguna eta beste ainbeste be, miñean beti eukazan. Ekiñago ta beroago egiten zan, ezpan-ertzak apar zuriz betetan jakozan da.

General jantzirik bere biziko morrosko diñot, go-raogoko zerrenda batean, apaiz jantzirik be, naikoa zan generalik.

Gintzazan lagun-pilla izanik, eta danentzako lekurik ezean alkarri orpoak zapaltzen, urratuten ibili-bearra izaten genduan, da bein baten, an

etorranean bere lagun bateaz, enparantzatik igaro bearrez, oituratzat eukan lez, turutak ots egin eben igaroko eben bidean gintzazanok bidea idegi, txapela kendu eta tente egotera. Ibilera nastuan genbitzazalarik, ez turutarik eta ez gelditu ezgiñan egin. Eta berak, zer egin eban?

Iru gizon, iru gaztelar urtetan goratuak, lurrean jasotako zigarro-mokoz egiñiko errekiña erretan egon ziranean, jo eskuaz eskuan, eta arenbeste nekez egindako zigarroa, lurrera eratsi. Apaizkerietan andia zan, apaiztasunean txiki.

Autorrentzule.

Larunbatetan arratsaldez, autorrentzulek be etorten jakuzan da, urreratu nintzan areik lako baterengana. Kolko bete eriotzaz eliza erretteaz eta olako gaiztakeriz enintzakion urreratu. Baña autor-entzule mardikatu arentzat obena zera zan, Franco-ren aurka berbarik, iñor aurrera da zenbait alditan esan nabezan. Autortza neure erera eginik amaitu neban. Gerogo baten euskeldunak be etorten jakuzan.

Gosearen zorrotza.

Goseak zorrotzasun andia dau, iñoiz ezagutu eztauanarentzat sinistu-eziña, egia baiña emen dago.

Lursagarrak ainbestetzat zuritzeko talde aukeratu bat osatu eben, eta gosearentzat arri-koskor gogorrik eztagon lez, bat zuritzen eben artean beste bat, edo al ebezenak jaten ebezan. Zorroan etorten zirenak baño

gitxiago sukaldelatuten ziran. Zer egikean? Zuriketa aldian jan ezegien, jagolea jarri eutsoezan. Orduan, barri azal da guzti soñartean gordetan ebezan, oera eroan da lastakian sartu, gauean jateko. Egun batez arakatu ebezean, a bai ba-zan patata pilloak egitea, etxearen barruan eta zimaurrik bagerik.

Jaunartzeak.

Bein batzuk eta, beste bein euskeldun mordo ederra gintzazan Jaunartzea igende goizetan egiten genduanak. Gero salda baltza eguna bizitzen aste-ko. Oiturazko baiño ugaritxoago izaten zan.

Akeita, salda baltza ugariago izaten genduala jakin ebanean kaztillarrek, ainbat ta ainbat gureganatu ziran, autortuak eta autortu barik, saldea artzeko itxaromenez.

Kristautasuna ta katolikotasuna alakoxeak aldi artan ziran.

Jaungoikoaren izenean egin euskuezanak eginik, sinismen osoa eukanak orduan be galdu barik, baiña kulunkan eukanak zeatz galdurik, ardi baltz, zuri, ariak eta bildotsak batean eta baketsu bizi gintzazan.

Bolinaga-rena oraingo au be

Saman ajotzaz izan gintzazan, eta Ajuriagerra bera be guztion arteko zan.

Ajuriagerra ikasten, edo ikastaldi artan Ajuriagerra-z lagun-maitea zanak. Burgos urian Bolinaga aurkitu.





Aurkitu, berba egin. Bere aldetik Ajuriak agurtu egiala be, agindu.

Betorren bein giltzadun morroigaz, barruan egoana, Ajuria ikustera, iriki atea ta, morroiak Ajuriagerra-ri dirautso: Zatoz barrutik at, zugaz berba egin nai dauan jaun bat dozu itxaroten da. Ajuriaguerra urten zan, egun onak alkarri agertu eta, bost sei urrats alde batera, ta beste ainbeste bestera emonaz, aulan iñotsa Bolinaga-k Ajuria-ri:

- *Conoce Vd. a fulano?*

- *Si, señor mucho*

- *Bien, hombre, bien. Baya, hombre baya. Bueno hombre bueno.*

Pues aquel, ya ez Padre.

Eta beste berbarik barik, Ajuriaguerra len egoan zulora.

Olakoxea zan apaiz “biotzberea”, “errukitsua”, general andia

Dueso-n da Larrinaga-n

Ia 9 illebeta andi egunari noiz ilgo ete gaituen zai. Beste egunak Burgos-en ziran urte ta erdi gaur izango, biar izango, noiz izango ziran ezgenkiala.

Durango-koa semez, Eibar-koa bizitez eta sinismenez iñongoa etzana Burgos-en il eskuen: Ibarra zan bera. Autortzerik ezaban nai ezergatik be, eta autortu barik il eben.

Il eta gerozko mezetan, autortu bagerik il ebarnari ekinik, Bolinaga jaun andiak esaten ebazanek emen; «Muerto el perro, se acabo la rabia».

Bolinagaren berba entzutetsuak izaten ziran. Entzun da entzun nazkatu besterik ezginduzen egiten.

Gaxoz ilten ziranak.

Gaxoz il zan lenengokoa, donostiarra, edo gipuzkoarra zan beintzat: Mitxelena. Etxekoen ikertaldia izan ebana zan. Bera bakarrik izan zan emazte maitearen azken-agurra artu ebana.

Gaxorik aurkitzen zan oeraño iritxi zan emazte gaizua. Au egitarakoan barruan gengoalarik, barrurago sartu ginduzen oraindik, emakumea ark sartu-urtena egin egikean.

Il zan gipuzkoarra, aren ondoren 5 urteren buruan il ziranak ainbat eta ainbat izan ziran etxekoen agur maitearen laztan errukiorra artu barik.



Il ta barren artatik ataritzen ate nagusiraño lagun-tzen geuntzan gorpuari, ate ondoan expetxeko abesbatzak “Libera me domine” ta olako batzuk abestuz. An eroien gixajoa, ez etxekorik ez lagunik bagerik.

Burgos-ko espetxe andian gaxoten zana, ilbearrik izan ezker olatxe ilten zan.

Abesbatza.

Egunen joan-etorrian, eta E. Orbegozo zuzentzapean osatu zan abesbatza, geienak euskeldunak izanik, katalunyar, Asturias-ko ta Santander-eko batzuekaz alkartuta.

Gudaldia bide izanik galdurik egozan gudarate ziran, abesbatzak, eta gizon-andrazko kanpotar asko izaten ziran, abestiak entzutera, espetxeko nagusiak deiturik etorten ziranak.

San Pedro jaiak etozan, Burgos-ko jai nagusiak, eta abestaldea inguru-minguruak jagolez esiturik urten zan Burgos-ko elizaraño.

Egun artan, barruko ta kanpoko ate nagusiaren bitarteko landan, etxekoekaz bazkaltzeko baimena izan genduan, nasai nasaririk egin genduan.

Egunak ostera joiazan, alan da be baña zeri, zeren, aren bildur gintzazan.

Redencion bai, pakerik ez.

Redención au aldizkari, bat zan giltzaperatuentzat egiña, etxekoen laguntasunik, bear ba-genduan

Redencion-era arpidetu bear genduan. Ez gengozan burua makurtzera, eta bat edo beste arpidetukoren izenez etorten jakuzen, etxekoek bialtzen euskuen piti urria.

Eskutitzak.

Urteen joan-etorrian ur-tantak be arria zulotzen dau, guk bere ba beti barruan izango giñala usterik edo, ixil-mixilka artu-emonetan asi giñan gure zaindari ziranakaz. Arria zulaturik egoan. Arri zulatu lau ormen barrena zaintzen ebanak ziran eskutitzak Burgos-era ataritzen euskuezanak.

Nagusia izaten zan atondoan bein baten izkillu azkarrak ipiñi euskuezan soldaduz zaindurik. Arpegirik ez geuntzan ikusten mutil areiri. Inguru-minguruan egurarte gengozalarik, alako batean autumutuan asi giñan, eta eskutan zanak, zeberiorra zala erantzun; biar, etzi ta etxidamu leku berean izango zala. Egun askotan ez bazan be, idaztilaria izan genduan.

Bein baten emon geuntzazanean. Burgos-era ezin joanik, bere gauz artean ebazan gorderik. Jazo, zer jazo ete zan? Lapurreta bat izan eben soldaduen arteko zana, eta noz zan jakinairik arakatzean eragoien. Agertu ziran eskutitzak eta, gero jazo zananren barri, zeberioar arek emongo obeto nik baño.

Poloniar ateo.

Sinismen bageko gizona, gizon ederra ta lagunarterakoa.

Eguzkia kinka gorrian egoalarik poloniar au ere txapel barik eta ulea susterreraño mozturik ebillan, danok genbiltzaren tajuan. Burua anditu jakon geiago ezinean, geixotu zan eta, gaixotokira eroan.

Igandea zetorkigun egun gutxiren buruan. Oean etzunik ezegozen danak, egozan beartuta meza entzutera etortera.

Entzuten gengoalarik jezarrita jarraitzen eban bere lekuan, mezaren erdian alaxe jarraiturik ondoan eukazan gaixoak sutitu ziran arren, ta “Don Matias-ek” meza amaitu zanean dirautso:

- Zergaitik etzara besteakaz batean zutitu?
- Ateo naizelako.
- Zigortua izaterik nai ezbadozu, zoakidaz osagillarengana, eskatu agiria ta ekarridaizu atea zaran ala etzaran jakin gura dot eta.

Alakoxea zan gure don Matias. Bera zan lakoxeak ziran españarren katoliku, kristau eta Jaungoikuarrenganako sinismen zintzodunak, atea izatea zer zan etzekienak.

Matias au izaten zan idazkiak iraki, arakatu ta irakurten ebazana jabeari emon baño len.

Niretzako zan batek ipuin da kontu askoren artean “compañera” ekarrana.

Deia izan neban berarengana joateko, joan be, barriz, buruari azka joan nintzakion, zer izango eta zan larriak jota. Asi zan ba emendik ekin da andik ikutu, compañera aren esanaia komunisten berben bat zan jakin gurarik eta, adierazorik.

Pepe Verdes, Bilbo-ko, Korreo kaleko idazkitegiko nagusia be, antxe egoan preso, “entxufatua”, gugaz batean Bilbo-tik Burgos-era eroanik, eta au izan zan “Compañera” Eliz Deunaen berbetan be ba-egoala eta, Jaungoikuak Adan-i “compañeratzat” Eva emon eutsala esaten.

Verdes-i eskerrak, eneban zigorrik izan.

Perrotxikoak aña ugari.

Gudaldian nork agindurik asko, amaitu zanean, barriz, erdiak be, geiagi. “Paratxutistak” ekarri euskuengan perrotxikoak, aña ugari.

Paratxutista zenbait Gipuzkoa-ko Errenderi-n egonak ziran, pelota ta futbolzaleak.

Egunean eguneko eginberrak ondo ta zintzo betetzera beartuten genduezan, paratxutista onein bidez “Aupa” ta “Txir-Txir” euzkotarrak, kataluniar eta besteen bat be ba-zan, ostiko-pelotariak. Jolasketa ontan euzkotarrak nagusi, katalanak soka-tiran.

Rodillerak

“Rodilleras” zigor au etzan zigor txantxetakoak.

Lagun bi alkarren ondoan makurturik, belun-buruetan berebil-txirrinken goma zati bana ipiñirik ondo lotuta, emen da an eskuan zapiz lurra garbitzen emoten ebezen egunak eta egunak, erretzea ta berba-egitea galerazorik izanik.

Eguneroko ibillian egiten ziran “rodilleras”, baiña lenengotan etzan izaten eztizko gauza belau-buru urratuen ganea, goma madarikatua jartzea.

(Jarraituko da)





ITXASOKO AMATXU



Bermeok irailleko 15an ospatuten dau Begoñako Ama Bijiñaren irudia Gaztelugatxeko uretan urperatua izatearen 50 urteurrena.

Begoñako Ama Birjiñeren irudia Frantzizkotarren konbentutik Gaztelugatxeraño eroan zan.

Bermeo.

Mariñel sinistunen babeslekua da: otoitzaren arabera ta orregaitik, Bizkaiko Amatxu Begoñako Andra Mariak, urartetik be edo ta obeto esanda urazpitik Gaztelugatxe isla inguruko ur sakonetik zaintzen ditu mariñelak. Atzo bete ziran 50 urte murgilari talde batek irudi bat tronuan ipiñi ebana beraganako zaletasuna agertuz.

1963gn irallaren 15a gogorazteko Bermeok berriztatu eban garai aretan egindako zeremonia. 300dik gora ikusle batu ziran Cevas urpekari taldeak antolatu ebazan eginkizunetan. Taldekoak izan ziran, Giovanni Marra buru zala, aurtan 50 urte ekin eutsoela, arrisku ta guzti berunez betetako brontzesko irudia, 850 kilokoa, 12 metrora ur azpian ipinten.

Aldez aurretik, Ama Birjiñaren irudia suitzalleen kamioi baten sartuta, Bermeo erriko kaleetan zear ibilli ostean, eundaka itzasontziek lagundu eutsoen isloteraño.

Atzoko egunez, irailak 15, ia eun lagunek jarraitu eutsoen irudiaren kopiari Frantzizkotarren konbentutik Porturaño bidean eta dozen erdi ontzi besterik ez, itsasoko ibillaldian.

1963an garrantzizkoa izan zana, urtero ospatzeak epeldu egin dau giroa zaletasunak be gitxiagotuz, Aita Adrianen, orain 50 urte Lukarini irudigilleak taiututako irudia bedeinkatu ebanaren esanetan.

Bizkaiko berrogetamarren bat urpekarien artean, Tomás Crespo barakaldotarra aurkitu zan. Berau, Marrakin bate-

ra, izan zan ekintzaren eragillea eta urtero legez egondu zan urregorizko gertakizuna ospatzen. Ezin eban, ordea, ikusi al izan pantallan agertutakoa, itsututa egoalako. Alan da be barrua unkitu jakon arnas artzearen asperena entzuteak makiña bat gauza gogorazi eutsolako. “Ia uretan sartzeko gogoia izan dot”, iñoan txantxetan.

ESKEINTZA.

Ospakuntzako taldekide bat arduratu zan, arrisku ta guzti, urpeko eskeintza burutzen Antxe itxi ebazan sarea, bomberuen lantza, leurel-koroia ta lore xorta bat. Bai eta aire dun bomba bat bere.


“Itxasoan lanean edo gozatzen dabiltzanak: begiratu, jagon ta babestu dagizan” eskatu eban urpekariak pantallaren bitartez, Mario Iceta, Bilboko gotzaiak ospatutako eukaristian. Leku bietatik errezatutako *Aite gureak*, erabat unkitu zituan entzule guztien biotzak.

Errepide ondoan, 25 urte dirala kokatutako monolitoaren oroigarria dagon begiralekuan, ospatu zan eginkizun erlijioso bat. Antxe egondu ziran erriko agintari batzuk: Idurre Bideguren alkatea, buru izanik, ta Jaurlearitzako Justizia ta Erri Administrazioaren arduradun eta bozemaille Josu Erkoreka, bermeotarra.

Lukarini urperatutako irudiaren taiutzallearen semeak be bai. Euren artean Leonardo 1988 urtean irudiaren kopia egin ta Meza bitartean aldarean agirian egon zana.

Guzti orreikaz, geien ikusi ta urduritsu ibilli, Anna Marra, Giovaniren alabea izan zan. Eginkizun guztiak ondo antolatu ta egiztatze-ko ardurea eukiaz gañera, bere aitaganako barru miña gainditu jakon, bere aita, 1963an eragille sotzaillea, urte bete da il jakolako. Monolitoan xafla bat ipini jakon oroigarritzat. “Nik uste etxera noanean nai ta ez, gogoratuko dodaz aita ta bost aste geroago il zan nire ama” berbakaz amaitu eban bere eginbearra.

Bien bitartean urperaturik dagon Amatzuren irudi aurretik pasa ziran ainbet urpekari, eskerrak emonaz mende erdiaren zear egunero itsasoratzen diran arrantzaleen babesle ta jagole izan dalako.



50. URTEGARRENA

Ibillaldia: Eunen bat erromes izan ziran Porturaño Frantzizkotarren Elizan dagon kopiatutako irudiari lagundutakoak.

Itzaldia: 300 bat entzule egon ziran Monolitoan Iceta Gotzaiak emon eban Mezan.

Eskeintza. Monolitoren aurrean jarritako loraxortaz gañera abio bitik bera jauzi zan lore petalo polit ugari.

Tomas Crespo. Ama Birjiñaren irudia tronuan ipiñi eban urpekaria da. “ 1963 an deigarria zan eta lagun asko etorri zan. Gaur, barriz, ezta ikusten zaletasunik gazteen artean” diñoskunez.

Aita Adrian. Urteurren danetako Meza emollea.

Munetxek egokitua.
Bilbon, 1013/09/23



Ezkonbarri pasadizoa

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2012ko SARI LEIAKETA. Bigarren saria



Edurneren seme-alabei asko gustatzen jakezan amaren kontakizunak; aurtzarokoak, gaztarokoak. eta berak beti jazoera barregarrienak kontatzen eutsezan. Neguko arratsalde latz aretan, ezkonbarria zaneko gertaera bat kontatzen asi jaken.

_ Ezkondu aurretik, -asi zan kontatzen- inoiz ez neban etxeko gauzarik egin. Ni, gazterik asi nintzan lan-egiten etxeko kostuan laguntzeko eta. Nire ama kezkatu-ri egoan baña nik lasaitu neban esanez: Ama, etxetik noa baña ez bear-tuta eta zailtasunik baneu laguntza eskatuko neuskizu, baretu zaitetz mesedez, zu bezelako etxekoandre bikaña izan gura dot eta sarritan diñozun lez: "nai izatea da aal izatea".

Ezkondu eta ezkonberri bidaiaren ostean zuen aita ta biok gure etxebizitza berrira poz-pozik joan giñan. Nik urduri, zuen aitari sukaldaritzaz oso gitxi nekiala esan neutson, aldi aretan emakumea etxeaz bakarrik arduratzen zan eta. Berak lasai-lasai; --Ez kezkatu laztana, "ordu batean ezin dana, bitan egiten da" esaten, lantokira joan zan eta ni, bazkaltzeko zer gertatuko neukean pentsatzen asi nintzan.

Etxea berealaxe konpondu neban, iru logela, egongela, bañugela eta sukaldea osatzen eben pisua, ez zan luxu andiko etxea baña "txori bakoitzari eder bere kabia" eta geurea axe zan. Altzariz jantzita, logela, bañugela eta eskaratza baño ez egozan. Eskaratzako sutegia leengokoa zan, egurraz eta ikatzaz piztuten zana.

Zorionez zuen amamak ondo ornitu euskun ikaztegia eta nik ondo nekian txikitatik sua zelan piztu. Nagusiak sua piztuten ebenean ni beti an ondoan, eta badakizue: "Zer ikusi, a ikasi," eta nik su on bat egiten oso ondo ikasi neban.

Sutegia baegoan prest, ondo piztuta eta bereala otu jatan; jateko lenengoz lursagarrak, lukainka eta arrozagaz egingo neuke, niretzat janaririk gogokoena zan eta nire amak gozo-gozo egiten eban, orrez gainera egiteko erreza zan; oliotan berakatzatza, lukainka eta lursagarrak naastu, arroza erantsi gero ura bota, gatza eta zaindu egosi arte ia bail eta piper legorra bota zapore ona emoteko, ostean aragi-xerrata kitto.


Etxe beeko dendara Joan, dana erosi eta laster etxera itzuli nintzan bazkaria egiteko. Bat-batean zalantza bat; nik ez nekian biontzako zenbat arroza bear zan eta nire amari deitu neban urrutizkinez, agurrak eta adeitasunak eskertu ostean nire zalantzarako laguntza eskatu neutson eta berak: "Dos puñitos lazana" esan ostean beste gai batera aldatu eban alkarrizketa.

Dakizuenez amamak itz batzuk baño ez daki euskeraz, bere aurtzaroan debekatu eben eta. Baña kontura joango gara, agurrak amaitu ondoren sukaldera abiatu nintzan, marmita aproposa artu, osagaiak prestatu eta arroza neurtzean berriro zalantzak: Zelako "puñitoak" izango dira?, andiak, txikiak, ertainak?

Txikiegiak balira zuen aita erdi-gosez geratuko litzake eta berarentzako nik egindako lenengo bazkaria zan. Nire buruagaz eztabaidatu ondoren erabaki bat artu neban; Nirealako ukabilak botako neukez.

Baegoan dana marmitan egosten eta bere itxuraz ezin ohea geratuko litzakela uste neban nik baño "ustea ez da jakitea" eta amar minutu geroago, arroza loditzen astean marmitaren estalkia bultzatu eta bat-batean arroza gainditurik sutara jausten eta erretzen asi zan. Estu ta larri ni ez nintzan dana batu eta garbitzeko gauza eta gero eta arroza geiago jausten zan.

Guztiz kezkatu, agortu eta erdi negarrez nengoanean aita eldu zan etxera eta ni orrela ikustean barrea menpera-





tzen marmita sutik kendu eban arrozaren jausia gelditzen.

Bion artean ondarena garbitu eta gero jasoe-
ra osoa kontatu neutsonean arriturik galdetu eus-
tan:--Zenbat arroza erabili dozu?-- eta nik-amak
esandakoa baina nire ustez gitxiegia zan eta nik
nire ukabil antzeko bi tontor eta apur bat geia-
go bota dot.

--Ene laztanal-esan eban aitak arriturik-ez
dakizu arroza neurtzeko ukabil-ba-
rrukoa erabiltzen dan eta ez kan-
pokoa? familia ugarirentzat bota
dozu baña lasaitu zaitetz, "utse-
giñaz, utsegiteak zuzentzen
dira" eta okela-xerrak lursagar
frijituz oso onak egongo dira.

Barre algara sortu jakun bioi eta or-
dutik ona sarritan gogoratu dogu pasadizo a,
baña nire amari ere gauza bat irakatsi neu-
tson auxe esaten:

-Ama, "dos puñitos" eta "dos puñaditos" ez
dira gauza bera.

Beti bezela Edurneren Seme-alabei asko gustatu
jaken amaren jasoera eta barreka esan eutsoen:
-Ama, "Nai izatea da, aal izatea" esaera-zaarra
egiazkoa da, zu amamalako sukaldari ezin-obe-
zara.

-Maiteok -erantzun eutsen Edurnek- iñoiz ez
dozue au aaztu bear: "esaera-zaarak , gezurrik
ez".

Palmer

Palmi merino

IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI~IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA VIII.



2.4. Nortzuk izan ziran Ario ta Indoeuropeotarrak.

Zazpigarren orrialdian eta leenengo zatiaren seigarren atalean adierazten dot, nor eta nortzuri esaten eutsen Ario edo eta Indoeuropeoak dirala.

Nik, jakitunen artean ibilita sarritan entzun neban, Munduko gizakia sei tximu mota ezberdiñakaz osotzen dala, eta gaur Theo Wennemann jermaniar ele jakintzaren maixua, Peter Foster, Kanbridgesko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea dana, eta beste jakitun askori esker danok dakigu: “Makakus Rhesus”etik gatozela, euren azterketak ala emoten daualako, eta euren

artean ulermentzeko lortu eben leen Euskerazko mintzoera bidetik dala.

Ele-jakitunai burukomin aundiak emon eutsezan Indoeuropeotarren Izkuntzazko arloak.

Menperatzaile maltzurak, sekula ez dabelako gura izan, egirik argitu daiten, edo euren maltzurrezko guzurak argi zabalean geratzen diralako, alegiñ aundiak egiten dabez billakarien azter-lan orreik, Bereztasunezko legera ez egiezan urbildu.

A ta guzti, jakitunen izkuntzazko azter-lan bidetik, izkuntz orreik daukien azpiko edo oiñarrizko bardintasunagaitik, izkuntz bakar batetik sorturikoak dirala deritxe.



Goiko edesti laburretan ikusi dogu, menperatzailleak euren sasi eritxiak aurrera eroateko, zelako erak edo arauak⁽¹⁾ erabilten dabezan besteak daukien nortasunaren ordezeko ardurak ezereztuteko.

Izkuntzalari batzuk⁽²⁾ orregaitik, guzurraren mugara elduta eta adierazpenik gabe geratzen diranean alde batetik, eta bestetik, menperatzailleak goi aldetik Damoklesen ezpata dindilizka eukielako prest, izkuntzaren zalantzazko gauza guzti orreik Indoeuropear zorroan sartutako erabakiagaz, garbituta geratzen ziralako gogoratzen ziran. Ekintza orreik baiña, urrin dagoz egitik.

Adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan latin kumeak indoeuropeo zorroan sartu ?.

Ez ziran sortu biak latin eta Euskeraren bitartez ?.

Edo, latiñaren mendeko ekintzatik ?.

Baragarria da zorro orreitan danak nastuta sartzea, jakinda gaiñera, Latiña, Etruskoak Griegoen izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebe-

la, eta Etrusko ta Sumerioa izkuntzak, sustrai bategoak dirala.

Felix Zubiagak ondo argitzen dauz orren gora berak. Adibidez: Berbea, esan izan éko elburua bete dagian eta oiturazko arau zaletasunean, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta egon daiten, baita oroimenaren atzekadarik ez daiten egon, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zala, bere galduerak danoen oarkabeen atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dalako bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean kokatuta dagozelako.

2.5. Zergaitik euren leiñuen erri aldak?.

Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan, edo ta siko-neurri aundi baten Omo Sapiens asieraren oiturari jarraituz askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan ez ziran eltzen

(1) Mundu oneitan beste biderik ez dagoelako. (2) Geienak aldi-luze baten.

besteak morroitasunera menperatzen, eta Asia, India eta Afrikako menperatzailetasunaren jarraibideak gogortzen asi zirala ikusiz, eurak etxe gabeko edo alderraiezkoak⁽¹⁾ izanda, errez iruditu leike zergaitik euren leiñuen erri aldak.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak ?.

Etruria, Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egoan ⁽²⁾ eta iñork ez daki nondik agertu ziran.

Herodotok, Tirrenokoakin antz emoten dautso, eta Asia Txikerratik Italian agertu zirala diño.

Beste batzuen esanetan Europaren erditik agertu zirala eta oraingo edestilarien gora beran, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranarekin apur apurka sortu zala. K.a. VIIIIn gizaldian amabi laterritasunezko Urietan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta ta danak arremanduta erlijiozko alkartasun edo batasun baten.

Euren jaurkintzazko agintaritzza, Andi-Mandiak⁽³⁾ bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo⁽⁴⁾ iraspenean egokituta euki ebana.

Mariñelgintzan zentzun aundikoak izan ziralako, Lurrarteko Itsasoaren erri nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak. Eta ez euken lotsarik euren gizabidea aberastuteko, Italian, Ekialdeko Si-

rio, Ejiptzio eta Griegoen jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen.

Itsas aldeko lurrak ondo landuta eukinez gain, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko salerosketan maixutasun aundia.

VIIIn gizaldi erditik onantza, euren zabalkuntza erabagi eben, eta Erroma, gizaldi bateko agintaritzan zuzendu eben.

Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugartea menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen. Eta euren maldabera, VIIn gizaldean Erromatarren aurka asi ziranetik onantza asi zan.

509an, Griegoak, Samnitak eta galoak alkartuta, Etruskoaren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K. a. IVIn gizalditik onuntz, erromatarrek euren Uri nagusi guztiakaz geratu ziralako, eurenagandik babesteko premiña euki eben, eta K.a. 295an Erromatarrengaitik guztiz menderatuta, K.a. 90n urtean erritarteen gizarteko guda ostetik, erromatarren uritargo edo erritargoa⁽⁵⁾ artu bear izan eben.

Etruskoaren jendekuntza, bere inguruan egon ziran Unbroak, Liguritarrak eta Sabinoen erri guztietatik bereizpendu⁽⁶⁾ ziran, eta maitasun geiago emoten eutsoen: apainkeri⁽⁷⁾ ta oporraldeari⁽⁸⁾, gudako zaletasunari baiño.



(1) Alderraiezkoak = nòmadas. (2) Tirreno itsas-bazterrean, gaur Toskana dana. (3) Andi-mandiak = aristocracia. (4) ondorengo = hereditariamente. (5) Erritargoa = ciudadania. (6) Bereizpendu = disgregaciòn, separaciòn. (7) Apainkeri = adornos superfluos. (8) Opor-aldeari = vacaciones.



Etruskoak, erromatarren irakasleak izan ziran, Griegoen jendekuntz jakituriaren irakaskintzagaz.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarrak ?.

Antziñekoak dira, eta Arabian sortutako Kamita Semitikoren leiñu ondorengoak dirala esaten dabe.

Etxegabe edo alderraiezko artzain izanda, Mesopotamia⁽¹⁾, Lurrarteko Itsasoaren Ekialdea ta Nilo ibaiaren ibarretan zabaldu ziran. //Arabiatarren osotasuna: Antziñako Babilonia, Asirio, Kananeotarrak⁽²⁾, Arameo, judu edo ebrautarrak eta Etiopgeienak egiten dabe. Eta leiñuzko senitasun antzera taldekatu egiten dira, euren izkuntzak erro batekoak diralako.

K.a.1.000 urte inguru, Arabian bizi ziran gizarteak, erreñuetan antolatuta egon ziran, eta orreitatik bi nagusienak: Marib eta Sai´a⁽³⁾ izanda, K.a. 950 urtean Idazti Deunaren ara beran, azken erri onen erregiña Jerusaleera joan zan, Salomon ikustera.

K.a.VI gizaldian Dariok, Arabiako Iparraldea satrapi⁽⁴⁾ baten biurtu eban. Eta erromatarrak K.a.106n urtean Arrizko Arabia⁽⁵⁾ sortarazi eban.

K.o. IVn gizaldian, itzuli ziran Abisinioak⁽⁶⁾ eta berton egon ziran Himiaritarren ⁽⁷⁾ artean eztaibada gogorak sortu ziran, Ekialdeko erromatarren kaizertza sartu bear izanda erdian, bakeak lortzeko.

580an Mahoma, la Mekako Koreitxitastar leiñu baten jaio zan, eta 632an Medinan il. Beren aita, Siriakin Kameluakaz salerosten ibili zana il eta gero jaio zan Mahoma, eta lenengo bere aitona ta gero bere osaba batek azi edo azerazi eben. 24 urte euki ebazala, oso aberatza zan Kadidja alargunarekin ezkondu zan eta euki ebezan zortzi seme alabetatik, Fatima bakarrik aipatzen da.

Urte asko borrokan ibilita ondoren, igarle⁽⁸⁾ biur-tuta, bere esanaren aldeko lagun asko euki arren, etsaiak be agertu jakozan eta K.o.622an Uztaillaren 16an⁽⁹⁾ Medinara igez ebanean, bertan aurkitu ebazan bazkide gogotsuakin, beren erkidegoa antolatu, mezkita eraiki, erlijiozko gurketaren era-arrauak ezarri, eta juduak erakarteko porrot eginda ondoren, ziñ ustelaren⁽¹⁰⁾ aurka, guda santua asi eban.

K.o.630ean La Mekara joanda, erlijio ta politikan nagusi izendatu eben. Beren irakaskintzak Koraneko liburuan batuta.

(1) Mesopotamia=Asia Menor, entre el Tigris y el Eufrates.(2) Kananeos = antigua ciudad de Palestina, donde hizo Jesus su primer milagro, eta Amorrítak, Moabitak eta Feniziarrak zirenak. (3) Sai´a=Saba. (4) Satrapi=Persiatarren jaurlari edo agintaria. (5) Arrizko Arabia=Arabia Pètreea. (6) Abisinoak, Kristau-ak ziran. (7) Himiaritarren = judutarrak.(8)Igarle = Profeta. (9) Au da hejira edo musulman erlijioaren asiera.(10) Ziñ-ustel = infiel.

Beren ondorengoak, batasunezko teokrazi jaurkintza orregaz gudarako sukartuta, Iparraldetik: Siria, Ejipto ta Persiagaz jabetu ziran eta Afrikako Iparraldetik zabaldua, VIIIn gizaldiaren amaieran Mauritaniara⁽¹⁾ joan eta islandartu eban.

711n urtean Tarik ben Zeyaden gudalozteak erdi ugarte onetara aldatuta, eta Rodrigori Guadaleten irabazi ondoren, Auñamendietara igon eben, eta Frantzia Poitierseraño sartuta, Marteltar Karlosek geratu ebazan.

756an I Abderramanek Guadalkibir guda ostean, Kordoban Omeyatar leiñua bir ezarri eban.

762ko urtean La Mekaren ordezkari Kufa, Damasko ta Bagdadeko Uri nagusiak izendatu ebezan eta musulman laterriak ugaritu ondoren, 1.258an Bagdaden Mongoliarrak sartu ziranean moruen berakada oskatu edo marratu eban, eta maldabera ori, 1.517an Turkoak Ejipto menderatu eta Islam osotasunaren menpekotasuna lortu ebenean amaitu zan.

929ko urtean IIIIn Abderramanek, Kordobako kalif erriaren Kalifa izendatu zan, politika, diru kontu eta jakintzan, aurrerakuntza aundiak artuta.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2013an Urtarrillaren 15ean



(9) Iparraldetik Mendebaleko Sahara eta Arjelia, Ekialdetik Mali, Ego aldetik Mali ta Senegal, Ipar Mendebalek Sahara eta Mendebalek Atlant Itsasoa mugatzen dabena eta len erdi ugarte onegaz muga egiten ebana

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

**Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleak
zugana kantari.**

**Itxas gizon siñesdunak
zugañ dabe kabi
artzain gaixo menditarrak
zugañ euren begi
lugin eta langileak
zuri otoilari
aberatsak ta txiroak
zaituela argi.**

**Ama maite biotzeko
bigun eta garbi
Bizkaiko seme alabak
artu ta zain beti (berriz).**

**Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleak
zugana kantari.**



Begoñako Andra Mari